# gutunzuria

## Bilboko Letren Nazioarteko VI. Jaialdia

# Irakurlearen/idazlearen oroitzapenak

HÉCTOR ABAD FACIOLINCE
OSKAR ALEGRÍA
MARGARET ATWOOD
JOHN BANVILLE
HARKAITZ CANO
MARGO GLANTZ
ANTONIO LOBO ANTUNES
ALBERTO MANGUEL
EIDER RODRÍGUEZ
IBAN ZALDUA

+

MAIALEN LUJANBIO
XABIER ERKIZIA
'TXORI MUGARIAK'

JON UGARRIZA
'GUTUN ZURIA'

**apirila** 11 ⟶ 14 | 18 ⟶ 21

Alhóndiga Bilbao

**Kultura Bizi Den Tokia**
Donde Vive la Cultura

www.alhondigabilbao.com


BABESLEA
bbk

LAGUNTZAILE INSTITUZIONALAK
Embajada de Irlanda
Canadá

LAGUNTZAILEAK
BIZKAIA
fnac www.fnac.es
metro bilbao
ALSA
Bodega Urbana

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK
EL CORREO
CADENA SER

# IRAKURLEAREN / IDAZLEAREN OROITZAPENAK

Idaztea praktikaren bidez eta beste batzuek idatzi dituzten liburuak irakurtzen ikasten den lana, lanbidea da. Beharbada ez da edozein lanbide; ez da besteak baino handiagoa ez txikiagoa, ez da altuagoa ez baxuagoa. Baina pixka bat desberdina da. Idazketan eguneroko errealitatea dago: inongo egilek ez luke sinetsi beharko mundua sorrarazteko gai den jainko bat denik, oker egongo bailitzateke. Era berean, idazketan memoria eta irudimena daude; oso muga gutxi dituen askatasuna, kontuak beste era batera joanez gero zer gertatuko litzatekeen pentsatzeko. Hori nekez gertatzen da beste lanbide batzuetan. Idazketaren lanbidea, beraz, teknikaz, behatutako eta gogoratutako errealitateaz, eta istorioak asmatzeaz elikatzen da.
Eta zer esan irakurketaz? Txikitatik irakurtzen dugu, eta irakurtzen ikastea sorrerako gertaera bat da gure bizitzan. Irakurtzen mundura hurbiltzen gara, bertan sartzen gara, eta beste era batera irudika dezakegu, hainbeste gustatzen ari zaigun liburu horrek akuilatuta. Irakurtzeak bakardadetik sendatzen gaitu, mundutik babesten gaitu, edo munduarekiko interesa pizten digu, eta munduan izaten diren gertakarietan esku hartzera bultzatzen gaitu.
Irakurlea ez da helmuga pasibo edo geldo bat. Barre egiten du, haserretu egiten da, amets egiten du, ezeztatu egiten du eta esku hartzen du. Berak ere istorioak asmatzen ditu, eta, asmakuntza horiek eginez, idazle bilaka daiteke, hala nahi badu. Hortaz, idazketan eta irakurketan istorioak asmatzen dira.

Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren edizio honetan, zera galdetu nahi diegu gonbidatuei: nola eta zergatik igaro ziren irakurle izatetik idazle izatera. Badakigu Asturiasko Printzea Saria jaso zuen Margaret Atwoodek asko irakurri zuela nerabea zenean, hala Robert L. Stevenson eta Jane Austen, nola poliziaeleberria eta zientzia fikzioa. Eta zer esan Alberto Manguelez? Gazte-gaztetatik, izango du hizpide, hau da, bere ipuinetan irmo eta zehatz aztertzen dituen harreman pertsonalak.
Egile horiek Gutun Zuriaren lehen zatian egongo dira, apirilaren 11tik 14ra bitartean. Apirilaren bigarren astean, 18tik 21era, Margo Glantz idazle mexikarrak tradizio kulturalez eta familiarrez eta generoaz hitz egingo du, eragin handia izan baitute praktika literarioan. Harkaitz Canok bere




Borges irakurtzen zuen, itsu zegoela. Eta, horrez gain, mundu osoan ezaguna den literaturaren historia idatzi, eta inork baino argiago azaldu du zer den irakurtzea, mundura sartzeko ate gisa hartuta.
Héctor Abad Faciolinceri, hau da, Umberto Eco, Italo Calvino eta Leonardo Sciasciaren itzultzaileari, zera galdetuko diogu: ea sendagairen bat dagoen irakurketan edo idazketan. Izan ere, berak idatzitako lan asko ditugu gogoan, baina batez ere, 'El olvido que seremos' gailentzen da, bere aitarekin zuen harremanaren kontakizuna, medikua eta giza eskubideen defendatzailea zen aita Kolonbian hil baitzuten, jaioterrian.
Iban Zalduak bere iritzia emango digu hizkuntzaren hautuaz –kasu honetan, idaztean euskara edo gaztelania hautatzeaz–, eta horrek dituen ondorioez. Era beran, Eider Rodríguezek bere barneko lurraldea unibertsoa zabalduko digu, letrez, musikaz eta lekuz eraturiko unibertsoa. Eta John Banville irlandarrak –George Steinerren ustez bizirik dagoen ingelesezko eleberrigilerik handiena denak– aditzera emango digu zergatik bururatu zitzaion hamabi urte zituela idazlea izatea, eta zein eragin izan zuen irakurketak, edo irakurketek, nortasun literario bikoitza izan dezan: bere izenez sinatzen duena, eta Benjamin Black, eleberri beltza idaztean baliatzen duen ezizena.
Antonio Lobo Antunes Portugalgo idazle handiak emango dio urrezko amaiera jaialdiari. Berak ere oso goiz izan zuen literaturarekiko bokazioa, eta bere obra bereziari eta arriskutsuari esker Europako letretako tokirik gailenean dago.

# LITERATURAREN HILABETEA

Apirila literaturaren hilabetea da AlhóndigaBilbaon. Bertako programazioak artearen diziplina guztiak hartzen ditu barne, hitza leitmotiv gisa hartuta. Apirilaren 11tik 21era bitartean, Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren seigarren edizioan, letren esparruko pertsona ospetsu ugarik hartuko dute parte. Hitzen zale amorratu horiek zuzenean emango digute aditzera nola igaro ziren irakurle izatetik idazle izatera.
Era berean, hitza izango da beste adierazpide artistiko batzuen haria, adibidez, jaialdiari hasiera emango dion Jon Ugarriza koreografo bilbotarraren 'Gutun Zuria' dantzaikuskizunean, Maialen Lujanbio bertsolariaren eta Xabier Erkizia soinu-artistaren 'Txori Mugariak' kontzertu esperimentalean, edota Oskar Alegría errealizadorearen 'Emak Bakia Baita' filma proiektatzean.
Haur eta Gazteen Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 2an ospatuko dugu Kulturen Atarian, 'Hemen hasten da historia' ikuskizunaren bidez; eta Liburuaren Nazioarteko Eguna, berriz, apirilaren 23an ospatuko dugu Bilboko Koral Elkarteko Euskeria Abesbatzaren errezitaldi batekin.

# AGENDA

## OSTEGUNA, APIRILAK 11

19:30
Gutun Zuriaren inaugurazioa, 'Gutun Zuria' ikuskizunarekin
Solasean: Margaret Atwood Montserrat Domínguezekin*

21:30
Irakurlearen ordua**
Topaketa Margaret Atwoodekin

## OSTIRALA, APIRILAK 12

11:00
Espetxetik. Héctor Abad Faciolince Basauriko espetxeko presoekin

12:00
Alberto Manguel. Topaketa unibertsitateko ikasleekin***

18:00
Liburuak sinatzea
Margaret Atwood
FNAC
Sarrera dohainik

19:30
Solasean: Alberto Manguel Javier Rodríguezekin*

21:00
Irakurlearen ordua**
Topaketa Alberto Manguelekin

## LARUNBATA, APIRILAK 13

13:00
Liburuak sinatzea
Héctor Abad Faciolince eta Alberto Manguel
Kulturen Ataria. Sarrera dohainik

19:30
Solasean: Héctor Abad Faciolince Mª Luisa Blancorekin*

21:00
Irakurlearen ordua**
Topaketa Héctor Abad Faciolincerekin

## IGANDEA, APIRILAK 14

18:30
Solasean: Iban Zaldua Pedro Ugarterekin*

20:00
Solasean: Eider Rodríguez Idurre Eskisabelekin*

21:30
Irakurlearen ordua: Topaketa Iban Zaldua eta Eider Rodríguezekin**

## OSTEGUNA, APIRILAK 18

19:30
Solasean: Margo Glantz Menchu Gutiérrezekin*

21:00
Irakurlearen ordua: Topaketa Margo Glantzekin**

## OSTIRALA, APIRILAK 19

18:30
Solasean: Harkaitz Cano Goizalde Landabasorekin*

20:00
Solasean: Oskar Alegría Harkaitz Canorekin*

20:30
'Emak Bakia Baita' ('La Casa Emak Bakia') (2012) filmaren proiekzioa Oskar Alegría. 84'

22:00
Irakurlearen ordua: Topaketa Harkaitz Cano eta Oskar Alegriarekin**

## LARUNBATA, APIRILAK 20

13:00
Liburuak sinatzea: Margo Glantz, John Banville, Antonio Lobo Antunes eta Harkaitz Cano
Kulturen Ataria. Sarrera dohainik

19:30
Solasean: John Banville Iñaki Estebanekin*

21:00
'Txori Mugariak' kontzertua, Maialen Lujanbio eta Xabier Erkizien eskutik
Bastida Aretoa. -2. solairua. Sarrera dohainik.
Ezinbestekoa da gonbidapena Infopuntuan jasotzea.
Plaza-kopuru mugatua.

21:30
Irakurlearen ordua: Topaketa John Banvillerekin**

## IGANDEA, APIRILAK 21

19:30
Solasean: Antonio Lobo Antunes Mª Luisa Blancorekin*

21:00
Irakurlearen ordua: Topaketa Antonio Lobo Antunesekin**

## ASTEARTEA, APIRILAK 23

19:30
Bilboko Koral Elkarteko Euskeria Abesbatzaren kontzertua*

## INFORMAZIO ERABILGARRIA

Sarrerak salgai egongo dira martxoaren 1etik aurrera, Infopuntuan eta www.alhondigabilbao.com webgunean.

Hitzaldi guztietan aldi bereko interpretaziozerbitzua egongo da, euskarara edota ingelesera. Ezin bazara hitzaldietara etorri edo sarrerarik gabe geratzen bazara, entzun itzazu zuzenean livestreamen

Jarraitu Gutun Zuriaren programazioa hemen:

* Auditoriuma. -1. solairua
3€ / 2€ AlhóndigaBilbao txartela aurkeztuz gero
** Auditoriumeko atartea. -1. solairua
Hitzaldira joaten diren lagunentzat bakarrik.
*** Auditoriuma. -1. solairua. Sarrera dohainik

## MARGARET ATWOOD

Solasean Montserrat Domínguezekin



OSTEGUNA, APIRILAK 11 19:30

Aurten, Letretako Asturiasko Printzea Saria irabazi duen Margaret Atwood idazle kanadarrak emango dio hasiera jaialdiari. Montserrat Domínguez kazetariarekin solasean arituz, sakon azalduko du zientzia fikzio eta polizia-eleberriarekiko duen grina.

Atwoodek 50 liburu baino gehiago idatzi ditu, eta poesia eta fikziozkoa nahiz fikziozkoa ez den literatura landu ditu. '*The Year Of The Flood*' eleberrian (2009), argi agertzen da Atwoodek trebezia bitxia duela irakurleen kezkei aurrea hartzen dieten liburuak idazteko. Argitalpenik berriena '*In Other Worlds: SF and the Human Imagination*' da (2011). Bertan, irakurle eta idazle gisa, zientzia fikzioak berarentzat izan duen esanahian sakontzen du.

## ALBERTO MANGUEL

Solasean Javier Rodríguezekin



OSTIRALA, APIRILAK 12 19:30

Goizez unibertsitateko ikasleekin bilera izan ondoren, '*A History of Reading*' liburuaren egilea El País egunkariaren Babelia gehigarriko arduradunarekin arituko da, literaturak gaur egun duen garrantziari buruz solasean. Liejako (Belgika) eta Anglia Ruskin (Cambrige, Ingalaterra) unibertsitateetako honoris causa doktorea da Manguel. Lan gehienak ingelesez idatzi ditu, baina baditu gaztelaniaz idatzitako bi eleberri: '*El regreso*' (Brugera, 2005) eta '*Todos los hombres son mentirosos*', (RBA 2009). Bere lan guztiagatik, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren Saria lortu zuen 2002an, eta Roger Caillois Saria 2004an.

## HÉCTOR ABAD FACIOLINCE

Solasean Mª Luisa Blancorekin

Gutun Zuria 2013 edizioko zuzendaria den Mª Luisa Blanco hizketan arituko da '*El olvido que seremos*' liburuaren egilearekin. Lan hori giza eskubideen aldeko tratatu oso bat da. Gai horixe landuko du idazleak goizez, espetxean Basauriko presoekin izango duen topaketan.

Héctor Abad Faciolince kolonbiarra kazetaria, itzultzailea eta idazlea izan da. Idatzi dituen liburuen artean, hauek nabarmenduko ditugu: '*Tratado de culinaria para mujeres tristes*', '*Las formas de la pereza*', '*Angosta*', '*Fragmentos de amor furtivo*' eta '*El olvido que seremos*'. Azken liburu horri esker, sariak jaso ditu Portugalen eta Ameriketako Estatu Batuetan.



LARUNBATA, APIRILAK 13 19:30

© Ruven Afanador

## IBAN ZALDUA

Solasean Pedro Ugarterekin

Zientzia fikzioa izan zen idazle eta historiagile hau literaturaren mendean jarri zuen generoa, eta, gainera, bere lanetan gai jakin batzuei ekiteko duen moldea ere bada. Pedro Ugarte kazetariarekin arituko da, hitzak –gaztelaniaz eta euskaraz– duen garrantziaz solasean.

Iban Zalduak liburu hauek eman ditu argitara, besteak beste: '*Etorkizuna*' narrazio-liburua (Alberdania 2005, Euskadi Literatur Saria 2006), eta '*Si Sabino viviría*' (Lengua de Trapo, 2005) eta '*Euskaldun guztion aberria*' (Alberdania, 2008) eleberriak. Azken lanean artean, '*Ese idioma raro y poderoso*' (Lengua de Trapo, 2012) saiakera nabarmendu behar da.



IGANDEA, APIRILAK 14 18:30

## EIDER RODRÍGUEZ

Solasean Idurre Eskisabelekin



IGANDEA, APIRILAK 14 20:00

Eider Rodríguez, '*Katu jendea*' liburuaren egilea, Idurre Eskisabelekin arituko da, euskararen esparruko literatura sortzeko prozesuaz hizketan.

Errenteriako idazle euskaldun hau publizitatean lizentziaduna da, eta kazetari, argitaratzaile, idazle, eta gidoigile-lanetan jardun du. Gaur egun, irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitatean.

Narrazio-liburu hauek idatzi ditu: '*Eta handik gutxira gaur*' (2004; itzul. '*Y poco después ahora*', Ttarttalo, 2007), '*Haragia*' (2007; itzul. '*Carne*', 451 editores, 2009) eta '*Katu jendea*' (2010; itzul. '*Un montón de gatos*', Caballo de Troya, 2012).

## LIBURUAK SINATZEA

Gutun Zuriak, Bizkaiko Liburu-denden Elkartearekin eta Euskadiko Liburu Ganberarekin lankidetzan, aukera ematen dizu urtero literaturarekin dugun hitzordu honetara etortzen diren egileak ezagutzeko eta beraien liburuak sinatuta izateko.



**MARGARET ATWOOD**
**Ostirala, apirilak 12,** 18:00
FNAC. Sarrera dohainik

**ALBERTO MANGUEL ETA HÉCTOR ABAD FACIOLINCE**
**Larunbata, apirilak 13,** 13:00
Kulturen Ataria
Sarrera dohainik

**MARGO GLANTZ, JOHN BANVILLE, ANTONIO LOBO ANTUNES ETA HARKAITZ CANO**
**Larunbata, apirilak 20,** 13:00
Kulturen Ataria
Sarrera dohainik

## IRAKURLEAREN ORDUA

Egunero, bilerak amaitzean, 'Irakurlearen ordua' izango da Auditoriumeko atartean. Bilera informalagoa izango da hau, hurbiltzen diren lagunek beren iritziak egileekin partekatu, eta liburuak erosi ahal izango baitituzte egileek sina ditzaten, Shópak –AlhóndigaBilbaoren kultur dendak– atondutako gunean.

Gutun Zuriaren edizio honetan, ardo bakan bat hautatu dugu bilera honi laguntza emateko, La Bodega Urbana de Bilbaoko enologoek abagune honetarako bereziki prestatu dutena. Ardo freskoa, biribila eta gozoa da. Ardo atsegina, irakurketari beste gozamen bat eskaintzen diona.



Auditoriumeko atartean. -1. solairua
Sarrera dohainik, hitzaldira joaten diren lagunentzat bakarrik

**MARGARET ATWOOD**
**Osteguna, apirilak 11,** 21:30

**ALBERTO MANGUEL**
**Ostirala, apirilak 12,** 21:00

**HÉCTOR ABAD FACIOLINCE**
**Larunbata, apirilak 13,** 21:00

**IBAN ZALDUA ETA EIDER RODRÍGUEZ**
**Igandea, apirilak 14,** 21:30

**MARGO GLANTZ**
**Osteguna, apirilak 18,** 21:00

**HARKAITZ CANO ETA OSKAR ALEGRÍA**
**Ostirala, apirilak 19,** 21:30

**JOHN BANVILLE**
**Larunbata, apirilak 20,** 21:00

**ANTONIO LOBO ANTUNES**
**Igandea, apirilak 21,** 21:00

## MARGO GLANTZ
Solasean Menchu Gutiérrezekin




Idazlea, irakaslea, kazetaria, bidaiaria eta twitterlaria. Margo Glantz eredu bat da letra hispanikoen esparruan, eta Mexikoko poetikaren sortzailea den sor Juana Inés de la Cruz aztertzen aditua. Menchu Gutiérrezekin hizketan, argi erakutsiko digu irakurle sutsua izatetik nola bilakatu zen literaturako sortzaile.

Hainbat hizkuntzatara itzuli dituzte bere lanak, eta Guggenheim eta Rockefeller bekak lortu ditu.

Bere liburuen artean, hauek nabarmenduko ditugu: '*Las mil y una calorías*', '*Doscientas ballenas azules*', '*De la amorosa inclinación a enredarse en cabellos*'; '*Apariciones*'; '*Historia de una mujer que caminó por la vida con zapatos de diseñador*' eta '*Saña*'.

## HARKAITZ CANO
Solasean Goizalde Landabasorekin




Euskadi Literatura Saria 2012 jaso du '*Twist*' bere azken lanari esker. Canok literaturarekiko zaletasun handia izan du txikitatik, eta, horren ondorioz, poema-liburuak, saiakerak, eleberriak eta kontakizunak idatzi ditu. Goizalde Landabasorekin solasean, irakurtzeko izan duen zaletasun goiztiar hori aztertuko du, idazle bilakatu duena.

Besteak beste, lan hauek eman ditu argitara: zinema, literatura eta telebistari buruzko '*Ojo y medio*' saiakera (2010), '*El filo de la hierba*' (2007), '*Pasaia blues*' (2012), '*Jazz y Alaska en la misma frase*' (2004), eta '*Neguko zirkua*' narrazio-bilduma (2005). Bere liburuak zazpi hizkuntzatara itzuli dira.

## OSKAR ALEGRÍA
Solasean Harkaitz Canorekin

Harkaitz Canorekin hizketan aritu ondoren, Oskar Alegríak '*Emak Bakia Baita*' aurkeztuko du Gutun Zurian. Ez da erraza izango Man Ray zinemagile amerikarraren zinemagintza libertarioa inspiratu zuen etxea topatzea. Etxandiaren hiru plano baizik ez dira ezagutzen: ate nagusia, leiho bateko bi zutabe eta itsasalde hurbilaren zati bat.

Oskar Alegría kazetaria da lanbidez, eta kulturako programak idazten eta literaturari eskainitako guneak koordinatzen aritu da. 2002. urtetik hona, El País egunkariko El Viajero gehigarrian idazten du, eta '*Las ciudades visibles*' izeneko argazkigintzako proiektu artistikoa landu du.




## JOHN BANVILLE
Solasean Iñaki Estebanekin

Iñaki Esteban kazetaria, lehenbiziko ediziotik Gutun Zuriaren aholkularia izan dena, solasean arituko da John Banvillerekin. Banvillek, Frank Kafka 2011 saria irabazi du eta hitzen zale amorratua da. Bere eleberrien artean, hauek nabarmentzen dira: '*The Untouchable*', '*Eclipse*', '*Shroud*' eta '*The Infinites*'. Benjamin Black izengoitiaz, lan hauek argitaratu ditu Alfaguaran: irakurleen eta kritikaren aldetik arrakasta handia izan duen '*The Lemur*' (2009), eta '*Quirke*' pertsonaia nagusi gisa duen nobela beltzeko saila, aurki Britainia Handiko BBCk telebistan aurkeztuko duena. '*Ancient Light*' da gogo handiz itxaron dugun bere azken eleberria.




## MEDIATEKA BBK KULTUREN ATARIRA JAITSIKO DA

Gutun Zuriaren edizio honetan, gune bat sortu dugu, gonbidatutako egileen lanetara eta idazle horiek gogokoen dituzten irakurgaietara hurbildu zaitezen, eta lan horiek kontsultatu ahal izan ditzazun. Larunbat goizetan, liburuak sinatuko dituzte gune horretan.

Gogoan izan, jaialdia bukatu ondoren, Mediateka BBK-k edizio honetan parte hartuko duten idazleen funts bibliografikoa jarriko duela eskuragarri; hala, lan horiek mailegutzan hartu ahal izango dituzu, AlhóndigaBilbao txartela edo Bilboko Udal Liburutegien Sareko txartela baldin baduzu.

Apirilaren 11tik 14ra eta 18tik 21era
17:00 - 21:00
Sarrera dohainik

## GUTUN ZURIA LIBURU-DENDETAN

Bizkaiko Liburu-denden Elkartea eta Euskadiko Liburuaren Ganbera lankidetzan aritu dira aurten ere Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdian. Aste hauetan, Gutun Zurian parte hartuko duten egile nagusien bibliografiarik garrantzitsuena egongo da eskuragarri saltoki horietan.

Gainera, elkarlanean jardungo dute, apirilaren 13an eta 20an –larunbatetan– liburuak sinatzeko Kulturen Atarian izango den ekitaldian.

## ANTONIO LOBO ANTUNES
Solasean Mª Luisa Blancorekin




Mundu osoko eleberrigilerik berezienak itxiko du aurtengo jaialdia, eta bere irakurle eta idazle-alegiak ekarriko ditu hizpidera horretarako. Lobo Antunesek eleberriaren artea eraldatu du. Portugalgo sortzaile nekaezinak kontzientziaren barrura jotzen du emozioen bila.

Hona hemen idatzi dituen azken lanetako batzuk: '*Sôbolos Rios Que Vão*' (2010), '*Quarto Livro de Crónicas*' (2011), '*Comissão das Lágrimas*' (2011) eta '*Não é Meia Noite Quem Quer*' (2012).

Honoris Causa doktorea da Errumaniako Constançako Unibertsitatetik, Trás-os-Montes eta Alto Minhoko Unibertsitatetik eta Lisboako Unibertsitatetik.

## SHÓPA



Jaialdia den bitartean, Shópak, AlhóndigaBilbao kultur dendak, liburu-denda berezi bat jarriko du Auditoriumaren ondoan, gonbidatutako egileek dituzten liburu eskuragarri guztiekin, eta idazle horien inspirazioa izan ziren eta aurkezpenetan aipatuko dituzten zenbait liburuekin.

AlhóndigaBilbao txartela aurkezten dutenek %5eko deskontua izango dute argitalpen horiek erostean.

## Mª LUISA BLANCO

Gutun Zuria 2013 edizioaren zuzendaria



Centro de Arte Reina Sofía Museo Nazionaleko edizioaren zuzendaria. Mª Luisa Blanco kultura-arloko kazetaritzan aritu da azken 30 urteetan, eta El País egunkariaren Babelia eta Diario ABCren ABC Cultural kultura-gehigarrien zuzendaria eta Cambio 16 aldizkariaren zuzendariordea da.

Siruelak argitara emandako ‘*Conversaciones con Antonio Lobo Antunes*’ liburuaren egilea da.

## IÑAKI ESTEBAN

Gutun Zuriaren aholkularia



Iñaki Esteban ‘*El efecto Guggenheim*’ eta ‘*Libertad y sentido en las sociedades democráticas*’ liburuen egilea da; azken liburu horrekin, Miguel de Unamuno Saiakera Saria eskuratu du. Horrez gain, hainbat lan egin ditu, beste egile batzuekin batera arituta. Kazetaritzako irakaslea da, El Correo egunkarian lan egiten du, eta kultura-arloko hainbat argitalpenetan eta literaturari buruzko zenbait irratsaiotan aritzen da lankide gisa. 2002. urtean, Kataluniako Argitaratzaileen Gremioak urteko artikulugilerik onenari ematen dion Atlántida Saria eman zion.

## MONTSERRAT DOMÍNGUEZ

Kazetaria

Montserrat Domíngez Estatu Batuetan gehien irakurtzen den online egunkariaren ‘*El Huffington Post*’ espainierazko edizioko argitalpen-zuzendaria da, 2012. urtean edizioa sortu zenetik.

Horren aurretik, ‘*A vivir que son dos días*’ zuzendu zuen SER katean, hau da, asteburuetan liderra den programa.

Gaur egun, lankidetzan aritzen da SER kateko ‘*La Ventana*’ eta ‘*Hoy por Hoy*’ programekin, eta Tele 5 kateko ‘*El programa de Ana Rosa*’ programako politikazko hizketaldiarekin.



## PEDRO UGARTE

Kazetaria eta idazlea

Pedro Ugarte kazetari eta idazle bilbotarrak narrazioko lan zabala idatzi du. Hona hemen azken liburuen izenburuak: ‘*El mundo de los Cabezas Vacías*’ (2011) eta ‘*El país del dinero*’ (2012, Eleberriko Logroño Saria). Herralde Sariaren finalista izan da, eta Nervión, Euskadiko Literatura Saria, Papeles de Zabalanda, NH de Libros de Relatos, Lengua de Trapo eta Julio Camba sariak eskuratu ditu.



## JAVIER RODRÍGUEZ

Kazetaria eta idazlea



Javier Rodríguez Marcos El País egunkariaren Babelia kultura-gehigarriko liburuen informazioaren koordinatzailea da.

Poeta eta idazlea da, eta, besteak beste, lan hauek eman ditu argitara: ‘*Frágil*’ (Hiperión. Radio Nacional de Españaren El Ojo Crítico Poesía saria), ‘*Un torpe en un terremoto. Crónica periodística*’ (Debate), ‘*Vidas construidas. Biografías de arquitectos*’ (Gustavo Gili) eta ‘*Minimalismos*’ saiakera (Gustavo Gili).

## MENCHU GUTIÉRREZ

Idazlea



Menchu Gutiérrezek hainbat poema-liburu argitaratu ditu, eta horien artean ‘*El ojo de Newton*’ nabarmentzen da (Pre-textos, 2005). Prosaz idatzitako obra zabala du egina. Bere azken liburuen artean, hauek nabarmendu behar dira: ‘*El faro por dentro*’ (2011) eta bere lehenbiziko eleberrien bilduma txikia den ‘*La niebla, tres veces*’ (2011).

## IDURRE ESKISABEL

Kazetaria

Euskaldunon Egunkarian aritu zen lanean 1991tik 2003ra bitartean, eta, Egunkaria itxi zutenez geroztik, berria.info koordinatzen du, eta Berriako eguneroko zutabegilea da. Horrez gain, UPV/EHUko irakaslea da, Kazetaritzako Fakultatean. Bestalde, Euskadi Irratia, Euskalerria Irratia eta Info7 irratietako lankidea izan da.

Jakintzaren ildo berriek erakarrita, Antropologian lizentziatu zen. Gaur egun, tesia prestatzeko bide malkarretik dabil.



## GOIZALDE LANDABASO

Kazetaria eta idazlea

Kazetari-lanetan, Bizkaia Irratian eta Euskadi Irratian hasi zen, eta gaur egun Radio Euskadin egiten du lan.

Idazle gisa, hiru liburu eman ditu argitara: ‘*Korte bat, mesedez*’ (Alberdania, 2000); ‘*Jat*’ (Elea, 2005) eta ‘*Bränskint*’ (Txalaparta, 2011).



# DANTZA

## 'GUTUN ZURIA'

### JON UGARRIZAK ZUZENDUTAKO KOREOGRAFIA

**Osteguna, apirilak 11**
19:30

**Auditoriuma. -1. solairua**

**INAUGURAZIOA**

Aurten, Gutun Zuria jaialdiak dantzaren bidez azalduko du bere burua. Jon Ugarriza koreografo bilbotarrak pieza bat sortu du jaialdiari hasiera emateko. Paula de Castro dantzari nagusiak eta Rodrigo Sanz Estatuko Dantza Konpainiako kideak dantzatuko dute. 'Negua' temak (Mikel Laboa-Iñaki Salvador-Juantxo Zeberio), Bernardo Atxagaren offeko ahotsaz, eta Iñaki Salvadorrek pianoan egindako hasierako sormen-lanaz lagunduta, pertsonaia bat irakurketan hasteko prozesua erakusten digu, eta bere arreta eta interesa biltzen dituzten alderdiak eta xehetasunak nabarmentzen ditu bereziki, idazle bilaka dadin akuilua izango direnak.

Istorioa areago goresteko, Óscar Andrésen ikus-entzunezko proposamena izango dugu aurrean, ikuskizun bakan honen bidez letren esparrura eramango gaituena.



# MUSIKA



## 'TXORI MUGARIAK'

### MAIALEN LUJANBIO ETA XABIER ERKIZIA

**Larunbata, apirilak 20**
21:00

**Bastida aretoa. -2. solairua**
**Sarrera dohainik**
**Ezinbestekoa da gonbidapena Infopuntuan jasotzea**

Maialen Lujanbioren bertsoekin eta Xabier Erkiziaren soinuarekin, 'Txori Mugariak' ikuskizunak zuzeneko eta grabatutako ahotsak eta soinuak bateratzen ditu. Proposamen honek batera biltzen ditu musika, irrati performancea, literatura eta irratiak sorrarazten duen ikuskizuna, Iparra eta Hegoa batzen eta bereizten dituena aztertzen duena.
Hibridoak eta definitzeko zailak diren generoak, adibidez, irrati performancea, lan-esparruak eta diziplinak desagertzen direnean edo diziplina horien arteko mugak lausotzen direnean azaltzen dira. Irratiak askoz ere gauza gehiago biltzen ditu bere baitan, gune itxi batetik hizketan ari den ahots motelaz gain. Musika, koreografia, literatura eta irratiak sortzen duen ikuskizunaren arteko bidegurutze akusmatiko horretan, zaila da kontzertua eta dokumental artistikoa bereiztea, edota elkarrizketa eta performancea. Eta haiei irrati bihurtzen gustatzen zaie.

---

## EUSKERIA ABESBATZAREN KONTZERTUA – BILBOKO KORAL ELKARTEA

**Asteartea, apirilak 23**
19:30

**Auditoriuma. -1. solairua**
**3€ / 2€**

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, Bilboko Koral Elkartearen Euskeria Abesbatzaren kontzertua antolatu du Mediateka BBK-k. Programak errepertorio hau du:

VEGO, DOLCE MIO BENE
(Madrial anónimo)
**Luca Marenzio**

ECCO MORMORAR L'ONDE
(T. Tasso)
**Claudio Monteverdi**

ZIGEUNERLEBEN
(E. von Geibel)
**Robert Schumann**

DIE NECKEREIEN
(J. W. Mäiscsh)
**Johannes Brahms**

ORPHEUS WITH HIS LUTE
(W. Shakespeare)
**Ralph Vaughan Williams**

MY SPIRIT SANG ALL DAY
(R. Bridges)
**Gerald Finzi**



EVEN SUCH IS TIME
(Sir. W. Raleigh)
**Bob Chilcott**

JACINTO CHICLANA
(J. L. Borges)
**Astor Plazzola**

LOCURAS
(arr. L. Cangiano)
**Silvio Rodríguez**

ERRUKARRIA
(J. M. Iparraguirre)
**X. Sarasola**

XALBADORREN HERIOTZEAN
(X. Lete)
**Arr. Iñaki Urkizu**

TXORIA TXORI
(M. Laboa)
**Arr. Iñaki Urkizu**

**ANUS CIVIDIAN** Pianoa
**URKO SANGRONIZ** Zuzendaria

# DANZA

## ‘GUTUN ZURIA’
### COREOGRAFÍA DIRIGIDA POR JON UGARRIZA

**Jueves, 11 de abril**
19:30h
Auditorio. Planta -1
INAUGURACIÓN

Este año, Gutun Zuria se explica a través de la danza. El coreógrafo bilbaíno Jon Ugarriza ha creado para inaugurar el Festival una pieza interpretada por la bailarina principal Paula de Castro y Rodrigo Sanz, miembro de la Compañía Nacional de Danza. El tema ‘Negua’ (Mikel Laboa-Iñaki Salvador-Juantxo Zeberio) con voz en Off de Bernardo Atxaga y con la creación inicial de Iñaki Salvador al piano, nos trasladan al proceso de conversión del personaje a la lectura, haciendo hincapié en aspectos y detalles que captan su atención e interés, y que le llevarán a transformarse en escritor.

Una historia ensalzada con la propuesta audiovisual de Óscar Andrés que nos trasladará al mundo de las letras a través de este espectáculo único.



# MÚSICA



## ‘TXORI MUGARIAK’
### MAIALEN LUJANBIO Y XABIER ERKIZIA

**Sábado, 20 de abril**
21:00h
Sala Bastida. Planta -2
Entrada libre. Imprescindible recoger invitación en el Punto de Información. Infopuntua

‘Txori Mugariak’, con el bertso de Maialen Lujanbio y el sonido de Xabier Erkizia es una fusión de voces en directo, voces grabadas, sonidos... Una propuesta que aúna música, radio performance, literatura y el espectáculo que produce la radio y que aborda lo que une y separa al Norte y al Sur.

